www.foarse.com

# foarse

Foro Álava de Responsabilidad Social Empresarial / Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Araba Foroa

Junio 2011



- Editorial
- Resumen del V Congreso de Responsabilidad Social Empresarial de FOARSE. 16 de mayo
- Actividades desarrolladas por FOARSE en 2010

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava
ASLE EUSKADIKO ELKARTE LABORAL TALDEA AGRUPACION DE SOCIEDADES LABORALES DE EUSKADI
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala
Caja Vital Vital Kutxa www.cajavital.es
cámara de álava arabako ganbera
FUNDACION LABORAL SAN PRUDENCIO
SEA Empresarios Alaveses Arabako Enpresariak

## EDITORIAL

### Inauguración del V Congreso de RSE

**Intervención de D. Josu Sánchez, Vicepresidente de SEA Empresarios Alaveses (en representación de D. Juan José Azurmendi, Presidente de FOARSE)**

Es un placer daros la bienvenida a este Congreso y comprobar, con vuestra presencia, que la Responsabilidad Social Empresarial es una apuesta firme del tejido empresarial alavés y vasco. Quiero agradecer la presencia de los máximos representantes de nuestras instituciones en este acto, que, con su apoyo, contribuyen a que la RSE sea más que un objetivo, y que se haya transformado en una realidad, gracias al compromiso adquirido con la sociedad.

Por quinto año consecutivo, hoy nos encontramos celebrando el principal acto relacionado con la difusión de la RSE en el territorio alavés. Como entidad integrante de FOARSE es un honor constatar cómo aquel proyecto, iniciado hace 5 años, de crear un organismo que liderase la implantación de la RSE en la sociedad y el tejido empresarial alavés, es hoy una realidad.

Y no sólo la consecución de este Congreso y vuestra presencia en el mismo es una constatación de ello, lo es también el hecho de que FOARSE haya podido realizar, un total de 197 prediagnósticos de RSE a los que nuestras empresas se someten con el objetivo de obtener un primer acercamiento a los conceptos básicos, así como una valoración de su situación actual con respecto a los mismos. Y lo es también la apertura de las empresas y profesionales alaveses que, desde el pasado año, vienen colaborando en el programa "FOARSE, Puertas abiertas", y por el cual, entidades alavesas muestran sus buenas prácticas en materia de responsabilidad social empresarial a otros profesionales, que acuden a visitarlas con el fin de compartir, aprender y captar aquellas acciones que puedan ser trasladables a sus propias empresas, en un proceso de retroalimentación continua.

Hoy en día, la responsabilidad social empresarial puede definirse como la contribución activa y voluntaria a las mejoras sociales, económicas y ambientales, por parte de las empresas, generalmente con el objetivo de mejorar su situación competitiva, valorativa y también su valor añadido.

La RSE va más allá del cumplimiento de las leyes y las normas. Las empresas han comenzado a adoptarla como una actividad estratégica adicional en la competencia comercial. La empresa desempeña un papel muy importante en la vida de las personas, no sólo como generadora de empleo y riqueza sino como agente de desarrollo en las comunidades en las que están insertas. En conclusión podemos decir, que en la economía actual es menester de la sociedad exigir cada vez, mayor responsabilidad social a las empresas.

En este sentido, es ahora cuando la Responsabilidad Social Empresarial tiene más dificultades para su manifestación dentro de la empresa. Hace unos años, cuando empezamos a trabajar con la RSE dentro de las compañías, la situación económica era mucho más dinámica, y la aceptación de estas nuevas herramientas de gestión recibía una bienvenida calurosa por parte de los responsables de las empresas. Hoy, en cambio, es más difícil debido a que estamos en un momento estratégico en el futuro de muchas firmas.

A pesar de este entorno económico no tenemos que desfallecer en seguir destacando la importancia de la responsabilidad social empresarial en el tejido empresarial, y conseguir que la semilla de la RSE siga creciendo a pesar de las inclemencias del tiempo. Por ello, tenemos que seguir haciendo esta labor de asesoramiento y apoyo en la implantación de la RSE en las empresas para que cuando salgamos de la crisis seamos todos, en mayor medida, socialmente responsables.

En definitiva, la RSE va dejando de ser una elección, para transformarse en un futuro al que nos dirigimos con paso firme, un futuro compartido entre la empresa y la sociedad y en la que ambos agentes son interlocutores con objetivos comunes.

Sobre ese futuro y también sobre el presente de la RSE versará este año el congreso del Foro Álava de Responsabilidad Social Empresarial, un evento que, año tras año ha intentado adecuar sus contenidos, a las inquietudes de sus asistentes. Este año, queremos poner la vista en el presente; en casos destacables y destacados en el ámbito de la RSE, en buenas prácticas llevadas a cabo por empresas de fuera de nuestro territorio. Pero también en el mañana, en el futuro de la Responsabilidad Empresarial y en el cómo esas acciones y esa ideología pueden ir a la par, influir y tener un protagonismo fundamental en los nuevos modelos de negocio, en el nuevo contexto socioeconómico y en las nuevas inquietudes de una sociedad cambiante.

## RESUMEN DEL V CONGRESO DE RESPONSABILIDAD SOCIAL EMPRESARIAL DE FOARSE. 16 DE MAYO

### ECAY Construcciones y su certificación en RS 10

Alicia Ruiz, Responsable de RRHH y Sistemas Integrados de la empresa navarra ECAY Construcciones, presentó en el V Congreso de FOARSE, el proceso de implantación y certificación de la especificación RS 10 en esta organización. Tras una trayectoria en la que la empresa había implementado diversas medidas específicas de RSE, la certificación les supuso una oportunidad para incluir este aspecto en su planteamiento estratégico. En la fase de implantación, Alicia Ruiz destacó la consulta con los diferentes grupos de interés de la compañía, poniendo especial énfasis en la necesidad de que los canales de comunicación con cada uno de estos grupos estén previamente definidos y que se utilicen de la forma adecuada.

“El impulso del líder es necesario pero no suficiente”, destacó esta ponente que quiso insistir en la idea de que el éxito del proceso está en la implicación del conjunto de la organización. La comunicación y la participación fueron claves para lograr esta implicación, que considera más fácil en pequeñas y medianas empresas en las que la información circula de forma más fluida y, por lo tanto, es más viable conseguir un compromiso.

Para finalizar, esta profesional quiso destacar la RSE como una apuesta por la calidad y un propósito de diferenciación y poner el foco sobre el papel de la Administración Pública en este desarrollo, ya que, de forma progresiva, demandan empresas que realicen un modo de gestión responsable.

### La gestión Responsable de los Recursos Humanos

Francisco Mesonero, Director General de Fundación Adecco y Director de RSC de Adecco Ibérica, realizó una ponencia centrada en explicar las diferentes acciones desarrolladas desde la Fundación que dirige, para promover la integración laboral de personas en riesgo de exclusión. Creada en 1999, la Fundación Adecco es el resultado de la Responsabilidad Social asumida por la empresa multinacional de Recursos Humanos Adecco y su objetivo es atender las necesidades laborales de la sociedad, llevando a las empresas la parte más humana del mercado de trabajo y ayudando a las personas que lo tienen más difícil a la hora de encontrar un empleo. Desde el inicio de su intervención, Mesonero defendió la implementación de políticas de diversidad en las empresas porque “la diversidad siempre aporta riqueza, distintas perspectivas, posiciones y valores”. En su exposición, el Director de Fundación Adecco habló del itinerario de empleo desarrollado por la entidad, en el que se tiene en especial consideración la necesidad de orientar la formación desde el punto de vista geográfico y desde el punto de vista del tejido productivo que rodea a cada persona, del mismo modo que realizan una labor de adecuación entre ofertas de empleo y las distintas discapacidades con las que pueden encontrarse.

Mesonero destacó que su trabajo se realiza, en gran medida, en coordinación con el tejido asociativo, quién presenta un conocimiento mucho más profundo de las discapacidades. “Nuestro objetivo es sumar”, declaró.

Uno de los puntos destacados de su presentación, fue la centrada en las acciones transversales que desde la Fundación se desarrollan, como complemento del itinerario de empleo y que son un vehículo para proyectar la concienciación al conjunto de la estructura de las organizaciones.

El voluntariado corporativo, el I+D+I, el Plan Familia para familiares de personas con discapacidad, la acción de Adaptación y Accesibilidad y la línea destinada a Sensibilización y Concienciación.



## RESUMEN DEL V CONGRESO DE RESPONSABILIDAD SOCIAL EMPRESARIAL DE FOARSE. 16 DE MAYO

### "Las empresas que van a acabar el siglo, son las que incorporen la RSE"

El consultor internacional en desarrollo sostenible, Jose Luis Blasco, fue el encargado de clausurar este V Congreso. Con una ponencia provocadora, este socio y responsable de sostenibilidad de la consultora KPMG y colaborador, en calidad de experto, de numerosos medios de comunicación y de instituciones como la Comisión Europea o el Parlamento Europeo, se centró en el presente y el futuro de la RSE en las PYMES. Desde el inicio de su conferencia, Jose Luis Blasco hacía referencia a tres razones por las que la RSE "debe" interesar a las pequeñas y medianas empresas:

- Porque las PYMES "casi" ya no existen, en el sentido de que lo que estas empresas comercializan, sus clientes, etc., son multinacionales. Las organizaciones globales han crecido.
- Porque las nuevas ventajas competitivas están en el ADN de muchas de las PYMES. Las compañías han cambiado el concepto de cliente por el de personas, lo que las empresas quieren ahora es ofrecer a su clientes experiencias y, para ello, es imprescindible transmitir autenticidad. En este nuevo contexto, las PYMES están, sin duda, más preparadas para transmitir estos valores a sus públicos y son este tipo de entidades, quienes mejor saben que la única forma de competir de modo sostenible en el tiempo, es crear valor junto con tu público.



- Porque hoy es la base de la innovación. La aplicación de la RSE es un modo de obtener nuevos ámbitos de beneficio, tanto es así que Blasco afirmaba que "las empresas que realmente van a tener éxito, las que van a acabar el siglo, son las que incorporen la RSE". ¿Cuáles son esos campos de innovación?, más allá de centrarse en los tres ámbitos de intervención de la RSE (económico, social y medioambiental), los campos de innovación que nos sugiere este consultor, se centran en las intersecciones: hacer más con menos, hacer más para más gente y hacerlo mejor para más gente.





**Para finalizar, Jose Luis Blasco nos proponía 5 aspectos clave para tener éxito:**

- **Crear valor compartido - Poner el foco en las personas**
- **Liderazgo público - Papel en la sociedad**
- **Foco en el negocio - Los premios no pagan**
- **Crear competencias - Más que formación**
- **Ser auténticos**

## ACTIVIDADES DESARROLLADAS POR FOARSE EN 2010

Durante el ejercicio del pasado año, el Foro Álava de Responsabilidad Social Empresarial, llevó a cabo acciones en dos líneas: impulsar la RSE y fomentar su desarrollo en el tejido empresarial alavés. A continuación detallamos las acciones concretas realizadas:

- **Mayo 2010:** Celebración del IV Congreso de Responsabilidad Social Empresarial bajo el título “La RSE como factor de crecimiento sostenible y equilibrio. Las pymes alavesas como agentes activos en la senda europea”. Este Congreso contó, en su acto inaugural, con el respaldo de las principales autoridades de nuestro territorio y con las ponencias de D. Juan de la Mota Gómez Acebo, Presidente de la Red Española del Pacto Mundial de las Naciones Unidas; D. Javier Garilleti, Director de RSC y Reputación de PWC; D. Eugenio Tamayo, Gerente de Papelería Tamayo; Dª. Ana Belén Juaristi y Dª. Isabel Gutiérrez, Responsable de la empresa Engranajes Juaristi y Técnico en sistemas agrupados de la misma. La jornada de tarde estuvo centrada en una dinámica participativa de World Café. El congreso contó con un total de 105 asistentes.





### Y ADEMÁS…

1. Impulso de la **actuación de las cuatro Comisiones** a través de las cuales se despliega la actividad de la Junta Directiva de la Asociación, y en concreto:
   - » Comisión de Formación, Sensibilización y Concienciación
   - » Comisión de Información y Comunicación
   - » Comisión de Promoción en Empresas
   - » Comisión de Implantación

2. Distribución gratuita del **boletín informativo de FOARSE** a un total de 3.800 empresas alavesas. Durante el año 2010 se confeccionaron y distribuyeron tres nuevos números de este boletín.

3. Realización de **prediagnósticos a empresas de Álava.**
   - » FOARSE tiene diseñado un cuestionario de prediagnóstico con la finalidad de proporcionar a las empresas que lo deseen un primer acercamiento a los conceptos básicos de RSE, así como una valoración de su situación actual con respecto a los mismos.
   - » El alcance del Informe se circunscribe al nivel de integración en el que se encuentra la empresa en el momento de la emisión del mismo respecto a las tres dimensiones que conforman la RSE: la Social, la Ambiental y la Económica y a la relación con los siguientes grupos de interés: Órganos de Gobierno, Clientes, Proveedores o Subcontratistas, Personal, Sociedad, Medio Ambiente y Administración Pública.
   - » Las empresas que realizan los prediagnósticos, reciben informes al respecto, donde los datos facilitados se analizan de forma personalizada y estrictamente confidencial.
   - » En concreto, se llevaron a cabo 92 prediagnósticos durante el ejercicio 2010, sin coste alguno para la empresa.

4. Puesta en marcha de la actividad **“FOARSE Puertas Abiertas”**, en empresas que presenten buenas prácticas en materia de RSE. Esta novedosa actividad se realizó, en 2010, con dos Empresas: Torniplasa y Prismaglobal.

5. **Participación activa en el i-talde** sobre RSE de Innobasque.

6. **Participación en el Grupo de Contraste del Plan Estratégico de Desarrollo Sostenible** elaborado por la Diputación Foral de Álava.

7. Realización de **encuesta para conocer el estado de la RSE en las empresas alavesas,** con una muestra de más de 325 empresas.



## NOVEDADES FOARSE

### BOLETÍN ELECTRÓNICO

Queremos tener una relación más directa contigo, queremos que puedas darnos tu opinión y que nos aportes sugerencias.

Por eso, y porque además puedes echarnos una mano a dejar de emitir 7,15 Tn de $CO_2$ al año, te pedimos que te suscribas a nuestro nuevo boletín electrónico.

Es muy sencillo, sólo tienes que entrar en nuestra página web, www.foarse.com y sumarte a nuestro reto de disminuir la huella de carbono.







## FOARSE “PUERTAS ABIERTAS”

## “EXPERIENCIAS EN ECODISEÑO DE YOR, S.A.” 23 DE JUNIO.

| | |
|---|---|
| 10:00 - 10:15 | Saludo y presentación de asistentes |
| 10:15 - 10:30 | Presentación de YOR, S.A. |
| 10:30 - 11:00 | EL ECODISEÑO COMO UN FACTOR FUNDAMENTAL DE INNOVACIÓN. NUEVAS TENDENCIAS Y LINEAS DE INNOVACIÓN EN EL EQUIPAMIENTO URBANO. |
| 11:00 - 11:30 | Visita Guiada a las instalaciones |
| 11:30 - 11:45 | Pausa-café |
| 11:45 - 12:30 | EXPERIENCIA PRÁCTICA DE ECODISEÑO. BANCO ENNEA. |
| 12:30 - 13:00 | APLICACIÓN DE LOS CRITERIOS DE ECODISEÑO A LA NUEVA GAMA DE JUEGOS INFANTILES “GREEN” |
| 13:00 | Cierre de la jornada |

**INSCRIPCIONES ANTES DEL 22 DE JUNIO EN EL TELÉFONO 902 540 536**



www. foarse.com

# foarse

Foro Álava de Responsabilidad Social Empresarial/ Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Araba Foroa

2011ko ekaina




Editoriala

Enpresen Gizarte Erantzukizunaren inguruko FOARSEren V. Biltzarraren laburpena. Maiatzak 16

2010ean FOARSEk egindako lana


Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

ASLE EUSKADIKO ELKARTE LABORAL TALDEA AGRUPACION DE SOCIEDADES LABORALES DE EUSKADI

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

Caja Vital Vital Kutxa www.cajavital.es

cámara de álava arabako ganbera

FUNDACION LABORAL SAN PRUDENCIO

SEA Empresarios Alaveses Arabako Enpresariak

## EDITORIALA

### EGEari buruzko V. Biltzarraren inaugurazioa

**Arabako Enpresarien SEA elkarteko presidenteorde Josu Sanchezen hitzaldia (Juan José Azurmendi FOARSE-ko presidentearen izenean)**

Zuoi guztioi ongi etorria emateak bereziki pozten gaitu, gaur hemen egotearekin Enpresen Gizarte Erantzukizuna arabar eta euskal enpresa-sarearen apustu irmoa dela erakusten ari baikara. Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, gure instituzioetako ordezkari nagusiei hona bertaratzeagatik. Euren laguntzarekin, EGEa helburu huts izateari utzi eta benetako errealitate bihurtzeko bidean baitago, gizartearekin hartu diren konpromisoei esker.

Bosgarren urtez jarraian, Araban EGEa zabaltzeko egiten den ekitaldi nagusi honetan elkartu gara gaur. FOARSEko kide gisa ohore handia da ikustea, duela 5 urte gizartean eta arabar enpresa-sarean EGEa ezartzeko prozesua gidatuko zuen organismoa sortzeko abian jarri genuen proiektu hura gaur egun errealitate bihurtu dela.

Eta Biltzar hau bera eta zuok guztiok hemen egotea horren froga argia da. Baina badira beste batzuk ere. Esate baterako, FOARSEk guztira EGEaren gaineko 197 aurre-diagnostiko egin izana. Prozesu horretan parte hartzen duten enpresek oinarrizko kontzeptuetara hurbiltzea eta kontzeptu horiek kontuan hartuta euren egungo egoera aztertzea dute helburu. Eta ezin ahaztu daitezke ere, iaztik “FOARSE, Ate irekiak” programan parte hartzen ari diren eta euren ateak ireki dituzten Arabako enpresa eta profesionalak. Bisitan datozkien beste profesionalei enpresen gizarte-erantzukizunaren esparruko jardunbide egokiak erakusten dizkiete. Horrela, esperientziak partekatu, ikasi eta nork bere enpresara eraman ditzakeen jardunbideak aztertzen dira, etengabeko elkar elikatze prozesuan.

Gaur egun, enpresen gizarte-erantzukizuna honela azaldu dezakegu: enpresek gizarte, ekonomia eta ingurumen - arloan egiten duten borondatezko ekarpen aktiboa, enpresen lehiakortasuna, balioespena eta balio erantsia hobetzeko helburuarekin.

EGEa legeak eta arauak betetzea baino haratago doa. Lehiakortasun komertzialaren barruan enpresek jarduera estrategiko osagarri gisa ari dira EGEa ezartzen. Enpresak berebiziko garrantzia dauka pertsonen bizitzetan, enplegua eta aberastasuna sortzeaz gain, euren komunitateen garapenaren eragile ere badelako. Hortaz, gaur egungo ekonomian, gizarteak enpresei geroz eta gizarte-erantzukizun handiagoa eskatzen diela esan daiteke.

Ildo horretatik, une honetan Enpresen Gizarte Erantzukizunak inoiz baino zailtasun handiagoak ditu enpresaren barruan agertzeko. Duela hainbat urte, konpainietan EGEa lantzen hasi ginenean, egoera ekonomikoa dinamikoagoa zen, eta enpresetako arduradunek ongi etorri beroa ematen zioten kudeaketa-tresna berrien ezarpenari. Gaur egun, ordea, zailagoa da, hainbat enpresen etorkizunerako une estrategikoan murgilduta baikaude.

Testuinguru ekonomiko hori gorabehera, ez dugu enpresa-sarean enpresen gizarte-erantzukizunak daukan garrantzia nabarmentzeko lana albo batera utzi behar, eta EGEaren hazia ureztatzen jarraitu behar dugu, eguraldi okerraren gainetik.

Horretarako, enpresetan EGEa ezartzeko aholkularitza eta laguntza lana egiten jarraitu behar dugu, krisitik ateratzen garenean, guztion gizarte-erantzukizuna handiagoa izan dadin.

Azken finean, EGEa aukera bat izateari utzi eta nahitaez gure etorkizuneko helmuga bilakatu da, enpresek eta gizarteak partekatuko duten etorkizuna, bi eragile horiek helburu komunak dituzten solaskide diren etorkizuna.

Etorkizun hori eta EGEaren orainaldia izango dira Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Araba Foroaren aurtengo Biltzarraren ardatzak. Urterik urte, ekitaldi honen edukiak bertaratu direnen nahietara egokitzeko ahalegina egin dugu. Aurten, orainaldiari begiratu nahi diogu, EGEaren esparruan nabarmendu daitezkeen kasuei eta gure lurraldetik kanpoko enpresetan garatutako jardunbide egokiei. Baina, halaber, etorkizunari ere begiratu nahi diogu, Enpresen Erantzukizunaren etorkizunari, ekintza eta ideologia hori uztartu eta negozio-eredu berrietan, testuinguru sozioekonomiko berrian eta etengabe aldatzen den gizartearen nahi eta behar berrietan izan dezakeen funtsezko protagonismoari.

## ECAY Eraikuntzak eta RS 10 ziurtagiria

Alicia Ruiz ECAY Eraikuntzak nafar enpresako Giza Baliabideen eta Sistema Integratuen arduraduna da, eta FOARSEren V. Biltzarrean RS 10 ziurtagiria ezartzeko bere erakundean egindako prozesuaren berri eman zuen. Enpresak EGEaren inguruko hainbat neurri zehatz ezarri ondoren, ziurtagiriari esker, alderdi hori euren planteamendu estrategikoaren barruan sartzeko aukera lortu zuen. Ezartze-fasean, konpainiako interes-taldeei egindako kontsultak nabarmendu zituen Alicia Ruizek. Haren iritziz, berebiziko garrantzia dauka talde horietako bakoitzarekin erabili beharreko komunikazio-kanalak aldez aurretik zehaztuta egotea eta modu egokian erabiltzea.

“Liderraren bultzada beharrezkoa da, baina ez da nahikoa”, azaldu zuen, eta arrakastaren gakoa erakunde osoaren inplikazioan dagoela azpimarratu zuen. Inplikazio hori lortzeko komunikazioa eta parte-hartzea funtsezkoak izan ziren. Bi alderdi horiek errazago bideratzen dira enpresa txiki eta ertainetan, informazioa errazago bideratzen baita, eta beraz, errazagoa da konpromisoa lortzea.

Amaitzeko, EGEa kalitatearen alde eta besteengandik bereizteko egiten den apustua dela nabarmendu nahi izan zuen profesional honek, eta garapen horretan Administrazio Publikoak daukan paperari eman zion garrantzia, pixkanaka kudeaketa-eredu arduratsua daukaten enpresen zerbitzuak eskatzen ari delako.

## Giza Baliabideen kudeaketa arduratsua

Francisco Mesonero Adecco Fundazioko zuzendari nagusia da eta Adecco Ibérica-ko GEKeko zuzendaria. Bere Fundazioak bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea sustatzeko garatu dituen ekintzen berri eman zuen Biltzarrean. Adecco Fundazioa 1999an sortu zen, Adecco Giza Baliabideen enpresa multinazionalak bere egindako Gizarte Erantzukizunaren fruitu. Gizartearen lan-beharrak asetzea du helburu, eta horretarako, enpresetara lan-merkatuko alderdi humanoena eraman eta enplegua lortzeko zailtasun handiena dituzten pertsonei laguntza eskaintzen die. Bere hitzaldiaren hasieratik, Mesonerok enpresetan dibertsitate-politikak ezartzearen beharra defendatu zuen, “dibertsitateak aberastasuna eta ikuspegi, posizio eta balio desberdinak sortzeko balio baitu”. Adecco Fundazioko zuzendariak bere erakundeak garatutako enplegu-ibilbidearen berri eman zuen. Prestakuntza ikuspegi geografikotik eta pertsona bakoitzaren inguruan dagoen ekoizpen-sarearen ikuspuntutik bideratzeko beharrak berebiziko garrantzia du ibilbide horretan. Halaber, lan-eskaintza eta egon daitezkeen ezgaitasunen arteko egokitze lana egiten dute. Mesonerok nabarmendu zuen euren lana, hein handi batean, elkarteen sarearekin koordinatuta dagoela, elkarte horiek ezgaitasunen gaineko ezagutza zabalagoa baitaukate. “Gure helburua gehitzea da”, aitortu zuen.

Fundazioak garatzen dituen zeharkako ekintzak izan ziren bere aurkezpenaren beste ildo garrantzitsu bat. Ekintza horiek enplegu-ibilbidearen osagarri gisa garatzen dira, eta erakundeen egituretan kontzientziazioa areagotzeko tresna dira.

Boluntariotza-lan korporatiboa, I+G+B, ezgaitasunak dituzten pertsonen familientzako Familia Plana, Egokitze eta Irisgarritasun ekintzak eta Sentsibilizazioa eta Kontzientziazioa sustatzeko ildoa.



## "EGEa ezartzen duten enpresak izango dira mendearen amaierara iritsiko direnak"

Garapen iraunkorreko nazioarteko aholkulari Jose Luis Blascok eman zion amaiera V. Biltzarrari. Hitzaldi ausart baten bidez, KPMG aholkularitzako iraunkortasun arduradun eta aditu gisa hainbat hedabide eta instituziotako, hala nola Europako Batzordeko edo Europako Parlamentuko kolaboratzaile honek ETE-etako EGEaren oraina eta etorkizuna aztertu zituen. Hitzaldiaren hasieratik, Jose Luis Blascok EGEa enpresa txiki eta ertainen interesekoa zergatik izan "behar" duen azaltzeko hiru arrazoi jarri zituen mahai gainean:

- Geroz eta ETE gutxiago dagoelako, enpresa horien merkatuari, bezeroei eta bestelakoei begiratuta, multinazionalak direla esan baitaiteke. Erakunde globalak geroz eta gehiago dira.
- Lehiakortasun abantaila berriak ETE askoreen DNAn bertan daudelako. Konpainiek bezeroaren kontzeptua pertsonen kontzeptuagatik aldatu dute. Orain, enpresek esperientziak eskaini nahi dizkiete bezeroei, eta horretarako, benetakotasuna "saltzea" beharrezkoa da. Testuinguru berri horretan, inongo zalantzarik gabe, ETEak balio horiek euren publikoari helarazteko prestatuago daude, eta entitate mota hori da jakin badakiena etenik gabe lehiatzeko modu bakarra zure publikoarekin batera balioa sortzea dela.
- Gaur egun berrikuntzaren oinarria delako. EGEa ezartzea etekin-esparru berriak eskuratzeko modua da. Blascoren iritziz, "benetan arrakastatsuak izango diren enpresak, mendearen amaierara iritsiko direnak, EGEa ezartzen dutenak izango dira". Zeintzuk dira berrikuntza-esparru horiek? EGEaren berezko hiru arloetara mugatu beharrean (ekonomia, gizartea eta ingurumena), aholkulari honek gomendatzen dizkigun berrikuntza-esparruek elkarguneak dituzte ardatz: gutxiagorekin gehiago egitea, jende gehiagorentzat gehiago egitea eta jende gehiagorentzat hobeto egitea.







**Amaitzeko Jose Luis Blascok arrakasta lortzeko funtsezko 5 alderdi proposatu zizkigun:**

- **Partekatutako balioa sortzea - Pertsonengan arreta jartzea**
- **Lidergo publikoa - Gizartean bete beharreko papera**
- **Negozioan arreta jartzea - Sariak ez dira ordain nahikoa**
- **Konpetentziak sortzea - Prestakuntza baino gehiago**
- **Benetakoak izatea**

## 2010EAN FOARSEK EGINDAKO LANA

Iragan urteko ekitaldian, Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Araba Foroak bi lan-ildo jorratu zituen: EGEa bultzatzea eta arabar enpresa-sarean EGEaren garapena sustatzea. Jarraian, egin diren ekintza zehatzen azalpena:

- **2010eko maiatza:** Enpresen Gizarte Erantzukizunari buruzko IV. Biltzarra egin zen, “EGEa, hazkunde iraunkorrerako eta orekarako faktorea. Arabako ETEak, eragile aktiboak europar ibilbidean” izenburupean. Biltzarraren inaugurazio-ekitaldian gure lurraldeko agintari nagusiak izan ziren, eta ondoko pertsona hauen hitzaldiak entzuteko aukera egon zen: Juan de la Mota Gómez Acebo jn., Nazio Batuen Munduko Itunaren Espainiar Sareko presidentea; Javier Garilleti jn., PWCko GEK eta Ospea saileko zuzendaria; Eugenio Tamayo jn., Tamayo paperdendako gerentea; Ana Belen Juaristi and. eta Isabel Gutiérrez and., Engranajes Juaristi enpresako arduraduna eta Sistema bateratuen teknikaria. Arratsaldeko saioan World Kafe dinamika parte-hartzailea egin zen. 105 izan ziren Biltzarrera bertaratu ziren pertsonak.






### ETA HORREZ GAIN…

1. **Lau batzordeen jarduera** bultzatu zen. Batzorde horien esku dago Elkarteko Zuzendaritza - batzordearen jarduera garatzea. Ondoko hauek dira batzordeak:
   - » Prestakuntza, Sentsibilizazio eta Kontzientziazio batzordea
   - » Informazio eta komunikazio batzordea
   - » Enpresak sustatzeko batzordea
   - » Ezarpen batzordea
2. **FOARSEren informazio-buletina** doan banatu zitzaien Arabako 3.800 enpresari. 2010ean zehar, buletinaren hiru ale berri prestatu eta banatu ziren.
3. **Arabako enpresetan hainbat aurre-diagnostiko** egin ziren.
   - » FOARSEk aurre-diagnostikoak egiteko galdera-sorta bat prestatuta dauka, hala nahi duten enpresek EGEaren kontzeptuetara lehen hurbilketa bat egin dezaten, eta kontzeptu horiek aintzat hartuta, euren egungo egoera zein den balioetsi dezaten.
   - » Txostenean, hura prestatzen den unean enpresak EGEaren hiru dimentsioekiko (ekonomia, gizartea eta ingurumena) eta bere interes-taldeekiko (Gobernu-organoak, Bezeroak, Hornitzaileak edo Azpi-kontratak, Langileak, Gizartea, Ingurumena eta Administrazio Publikoa) daukan integrazio-maila neurtzen da.
   - » Aurrediagnostikoak egiten dituzten enpresek horri buruzko txostenak jasotzen dituzte, eta txosten horietan emandako datuak modu pertsonalizatuan eta zorrozki konfidentzialean aztertzen dira.
   - » Hain zuzen ere, 2010ean zehar 92 aurre-diagnostiko egin ziren, enpresarentzako inolako kosturik gabe.
4. **“FOARSE Ate irekiak”** jarduera martxan jarri zen, EGEaren esparruan jardunbide egokiak dituzten enpresetan. 2010ean, jarduera berri hori bi enpresatan egin zen: Torniplasa eta Prismaglobal.
5. **Innobasqueko EGEaren i-taldean** modu aktiboan parte hartu zen.
6. Arabako Foru Aldundiak prestaturiko **Garapen Iraunkorreko Plan Estrategikoaren Kontraste Taldean parte hartu zen.**
7. Arabako enpresetan **EGEaren egoera zein den ezagutzeko inkesta** egin zen 325 enpresatan.



## FOARSE BERRIAK

### BULETIN ELEKTRONIKOA

Zurekin harreman estuagoa izan eta zure iritzia zein iradokizunak ezagutu nahi ditugu.

Horregatik, eta urtean $CO_2$ko 7,15 tona ez isurtzen lagun diezagukezulako, gure buletin elektronikoan harpidetzeko eskatzen dizugu.

Oso erraza da: Jo gure web orrira www.foarse.com, eta bat egin ezazu gurekin karbono-aztarna txiki agotzeko erronkan.







## FOARSE "ATE IREKIAK"

## "YOR, SAREN EKODISEINU ESPERIENTZIAK". EKAINAREN 23AN.

| | |
|---|---|
| 10:00etatik 10:15era | Agurra eta bertaratuen aurkezpena |
| 10:15etik 10:30era | YOR, SAren aurkezpena |
| 10:30etik 11:00etara | EKODISEINUA BERRIKUNTZAREN FUNTSEZKO FAKTORE GISA. JOERA ETA BERRIKUNTZA ILDO BERRIAK HIRI EKIPAMENDUEN ARLOAN. |
| 11:00etatik 11:30era | Bisitaldi gidatua instalazioetatik. |
| 11:30etik 11:45era | Atsedena/kafea |
| 11:45etik 12:30era | EKODISEINU ESPERIENTZIA PRAKTIKOA. ENNEA BANKUA. |
| 10:30etik 13:00etara | EKODISEINU IRIZPIDEAK "GREEN" HAUR JOLASEN GAMA BERRIRA EGOKITZEA |
| 13:00etan | Jardunaldiaren itxiera |

**IZENA EMATEKO, DEITU 902 540 536 TELEFONO-ZENBAKIRA EKAINAREN 22A BAINO LEHEN**

